

“LAU TXERRIOTSOAK”

IKASGELARAKO JARDUERA PROPOSAMENA ETA MATERIALA



Elkarrekin Kooperatiba Elkarte Txikia
Nishtha Urkidi San Miguel

1. SARRERA

Gero eta globalizatuagoa eta anitzagoa den mundu honetan, erronka berriak azaltzen ari dira, adibidez, migrazioari eta kultura aniztasunari lotutakoak. Erronka hauek, gizartearen arlo guztietara estrapolatzen dira, baita ikastetxeetara ere. Funtsezkoa delarik eskoletan arrazakeriaren aurkako hezkuntza eta bizikidetzaren harmoniatsua baten aldeko balioak lantzea. Modu honetan, haurrek, beraien inguruan ikusten dituzten ezberdintasunak baloratzen ikasteko, eta herritar errespetuzkoak eta enpatikoak hezteko.

Honen garrantziaz jabetuta eta Ongi Etorri Eskolara proiektuaren barruan ikasturtean zehar egiten den lanketari jarraipena emateko asmoz, martxoaren 21eko astean (arrazakeriaren aurkako nazioarteko eguna), HH5, LH1 eta LH2 ikas mailetako ikasleekin kulturartekotasuna eta arrazakeriaren aurkako pedagogia lantzeko "Lau Txerriotsoak" jarduera proposamena prestatu dugu.

"Lau Txerriotsoak" ikus-entzunezko ipuin bat da, unitate didaktiko batekin batera sortu dena.

Ipuinak "Hiru txerritxoek" historia hartzen du abiapuntutzat, eta istorio berri bat aurkezten du. Bertan, ezaugarri desberdinetako protagonistek (jatorria, etxea, lenguaia...), bazterketaren eta errekonozimendu ezaren gordintasuna erakusten digute, baita errespetuaren, partekatzearen eta komunitatea sortzearen garrantzia ere.

Unitate didaktiko bestalde, gogoeta egiteko, pertsonaiekin empatizatze eta egunerokoan ditugun jarrera arrazistak identifikatzeko diseinatu dago. Horrez gain, ikasle bakoitzaren nortasuna, ezaugarriak eta bestea errespetatu eta elkarri laguntzearen garrantzia indartu nahi dira.

Proposamenean bi jarduera ezberdin jasotzen ditugu, adin tarte ezberdinetara egokituak. Proposamen bakoitzean, honakoa aurrera eramateko eman behar diren pausoak, materialak eta ebaluaziorako fitxa jasotzen dira.

"Hiru txerritxoak" ipuin klasikoa aukeratzea, haurrekin modu hurbilean konektatzeko asmoarekin egin da. Eta ikus-entzunezko ipuiarekin kulturarteko lanketa erakargarriagoa egitea da asmoa.

Amaitzeko, eranskinen artean, gaian sakotzeko erreferentzia bibliografikoak, hiztegitxo bat eta ikasleekin kultura aniztasunaren gaia lantzeko ipuien zerrenda jaso ditugu.

2. HELBURUAK

2.1.- Helburu orokorrak:

- **Kulturartekotasuna sustatzea:** Deardorffen¹ proposamenei jarraituz, ikasleek kultura desberdinetako pertsonekin modu eraginkorrean elkarreragiteko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzea bilatzen dugu. Gaitasun horien barruan sartzen dira kulturarteko komunikazioa, kultura-sentsibiltatea eta kultura-testuinguru desberdinetara egokitzeko gaitasuna. Modu honetan, aniztasuna aberastasuna dela erakutsiz, eta ez mehatxua.
- **Bizikidetza sustatzea:** Paulo Freirek² planteatzen duen bezala, "hezkuntza ezin da neutrala izan", baizik eta mundu bidezkoago eta solidarioago baten eraikuntzarekin kritiko eta konprometituak diren herritarrak sortzen lagundu behar du. Haurrak kultura eta ikuspegi desberdinetara azaltzean, etorkizuneko herritarrak izateko prestatzen ari gara, jatorri desberdineko pertsonekin errespetuz eta enpatiaz elkarreragiteko gai izateko.

2.2.- Helburu zehatzak:

- **Desberdintasunekiko errespetuaren garrantzia transmititzea:** Ikasleek ulertzea pertsona guztiek dutela errespetatuak izateko eskubidea, bere itsura, jatorria, baldintza materialak, etab. edozein direla ere.
- **Kultura aniztasuna aberastasun gisa ikustaraztea, ikasgelako kide bakoitzak dituen ezaugarriak identifikatu eta balioan jartzea (bakoitzak bere erritmora).**
- **Bestearen lekuan jartzeko gaitasuna lantzea:** ikasleek ikuspegi desberdinak hartu ahal izatea eta pertsona desberdinen esperientziak ulertzea.
- **Besteak mindu ditzaketen hitzak edota jarrerak identifikatzea.**
- **Ikasleen arteko kolaborazioa eta lankidetza sustatzea.**
- **Sormena eta ideien adierazpena sustatzea:** Ikasleak aske sentitzea beren iritziak eta sentimenduak errespetuz adierazteko.

¹ Kulturarteko konpententzien arloko ikertzailea eta gai horri buruzko hainbat lanen egilea.

² Bere pedagogia kritiko eta askatzaileagatik aintzatetsitako hezitzaile brasildarra.

3. JARDUEREN AZALPENA

1. JARDUERA: GURE PERTSONAIA SORTZEN			
HARTZAILEAK: HH5eko haurrak.	DENBORA: Saio bat (60 minutu).		
DESKRIBAPENA: “Lau txerriotsoak” bideoa ikusi eta apur bat honen inguruan hausnartu ondoren, haur bakoitzak bere txerritxoak marraztuko du. Azkenik, bakoitzak bere txerritxoak erakutsiko du, eta denon artean mural bat egingo dugu txerritxo guztiekin.			
JARDUERAREN GARAPENA: - Sarrera moduan azalduko diegu hiru txerritxoaren ipuinaren bertsio berri bat ikusiko dugula. - Bideoa ikusiko dugu. - Behin bideoa ikusi ondorengo hausnarketa gidatuko dugu galdera irekien bidez: - o Nolakoak dira ipuiean ateratzen diren pertsonaiak? (deskribatu elkarrekin beraien ezaugarriak: fisikoak, jatorria, hizkuntza, etxea nolako duten...). - o Zer gertatu da? eraiki istorioa denon artean... - o Nola uste duzue sentitu direla txerritxoak? - o Zer uste duzue pasa zaiola otsoari? - o Zer ikasi duzue haiengandik? - Jarraian, bakoitzak bere pertsonaia sortuko du. Hurrei ikusitako txerritxoaren marrazki batzuk emango dizkiegu txuri-beltzean, eta haiek beren txerritxoak marraztu eta sortu beharko dituzte, bakoitzak nahi dituen ezaugarriekin. Ikusitako bideoa kontuan izanda, txerritxoak kultura, etnia edota jatorri ezberdinekoak izango dira. Prozesuan laguntzeko, iradokizunak emango dizkiegu, esaterako, azalaren kolorearen, kultura ezberdinen, jantzien, apaingarrien eta hizkuntza ezberdinen inguruan. Beraiei gustatzen zaien herrialde bateko txerritxo edota otsoa marraztu dezakete behar bada, edo agian etxean edota eskolan entzundako herrialde bateko txerriotso bat. - Amaitzeko: Bakoitzak bere pertsonaia aurkeztuko du, labur azalduz bere ezaugarriak zeintzuk diren. Momentu egokia izango delarik, berriro ere, jarduera honetatik ateratako hausnarketa/ikasgaia gogorarazteko. Hala nola, anitzak garela eta aniztasuna abantaila gisa ikusi behar dugula. Bukatzeko, txerriotso guztiak soka batean zintzilikatuko ditugu mural bat sortuz, “23 txerriotsoak” (ikasgelan dauden kide kopurua).			
MATERIALA: <table border="0"> <tr> <td> • Ordenagailua • Proiektorea • Bozgoragailua • “Lau Txerriotsoak” bideoa • Margoak eta gometsak </td><td> • Txerritxoaren irudiak • Paper handia muralerako • Soka luze bat • Margoak edota zelaia • Guraizeak edota punzoia </td></tr> </table>		• Ordenagailua • Proiektorea • Bozgoragailua • “Lau Txerriotsoak” bideoa • Margoak eta gometsak	• Txerritxoaren irudiak • Paper handia muralerako • Soka luze bat • Margoak edota zelaia • Guraizeak edota punzoia
• Ordenagailua • Proiektorea • Bozgoragailua • “Lau Txerriotsoak” bideoa • Margoak eta gometsak	• Txerritxoaren irudiak • Paper handia muralerako • Soka luze bat • Margoak edota zelaia • Guraizeak edota punzoia		
ESPERO DIREN EMAITZAK: Ikasleek modu bisual eta erraz batean kultur aniztasuna eta errespetuaren inguruan ikastea eta hausnartzea. Gainera, sormena sustatuz, kultura ezberdinen eta aurreiritzien inguruan hitz egitea eta jabetzea.			

2. JARDUERA: TALDEKA ISTORIO BERRIAK SORTU			
HARTZAILEAK: LH1 eta LH2ko haurrak	DENBORA: Saio bat (60min).		
DESKRIBAPENA: “Lau txerriotsoak” bideoa ikusi eta apur bat honen inguruan hausnartu ondoren, taldeka <i>rol-playing</i> bat egingo dugu. Azkenik, taldeka antzezlan gela aurrean egin eta bakoitzaren inguruan hausnartuko dugu, ateratako egoerak landuz.			
JARDUERAREN GARAPENA: - Sarrera moduan azalduko diegu hiru txerritxoaren ipuinaren bertsio berri bat ikusiko dugula. - Bideoa ikusiko dugu. - Behin bideoa ikusi ondorengo hausnarketa gidatuko dugu galdera irekien bidez: - o Nolakoak dira ipuiean ateratzen diren pertsonaiak? (deskribatu elkarrekin beraien ezaugarriak: fisikoak, jatorria, hizkuntza, etxea nolakoa duten...). - o Zer gertatu da? eraiki istorioa denon artean... - o Nola uste duzue sentitu direla txerritxoak? - o Zer uste duzue pasa zaiola otsoari? - o Zer ikasi duzue haiengandik? - Jarduerarekin jarraituz, ikasleek <i>rol-playing</i> bat egingo dute, istorioa beste modu batean kontatuz. Horretarako, haurrak taldeetan banatuko ditugu (4 edo 5eko taldeetan), eta bakoitzak bertsio bat asmatu beharko du. Beraiek asmatutako istorio bat izan daiteke, arrazakeriarekin lotuta bizi izan duten gertaera bat. Edota lana errazagoa izateko, bakarrik bukaera aldatzeko eskatu diezaiokegu, adibidez, txerritxoak otsoarekin haserretzea, edo otsoak txerritxoak inoiz ez onartzea. Edo agian, txerritxoaren etxeak beste materialez eginak izatea, esaterako harriak, edo lokatza. - Rol-playing-a egiteko txerri eta otsoen irudiak edota maskarak prestatuko dituzte. - Amaitzeko, talde bakoitzak bere antzezlan egitean, talde handian hausnarketa egingo dugu: - o Zergatik erabaki du talde txikiak istorio hori? - o Zer sentitu dute hau egiterakoan? - o Ikusleak zer sentitu du? - o Egoera horiek errealitatean ikusten direla uste duzue? - o Zer egin dezakegu horren kontra?			
MATERIALA: <table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td style="vertical-align: top;"> • Ordenagailua • Proiektorea • Bozgoragailua • “Lau Txerriotsoak” bideoa • Margoak eta gometsak </td><td style="vertical-align: top;"> • Txerritxoaren irudiak • Paper handia muralerako • Soka luze bat • Margoak edota zelaia • Guraizeak </td></tr> </table>		• Ordenagailua • Proiektorea • Bozgoragailua • “Lau Txerriotsoak” bideoa • Margoak eta gometsak	• Txerritxoaren irudiak • Paper handia muralerako • Soka luze bat • Margoak edota zelaia • Guraizeak
• Ordenagailua • Proiektorea • Bozgoragailua • “Lau Txerriotsoak” bideoa • Margoak eta gometsak	• Txerritxoaren irudiak • Paper handia muralerako • Soka luze bat • Margoak edota zelaia • Guraizeak		
ESPERO DIREN EMAITZAK: Ikasleek modu bisual eta erraz batean kultur aniztasuna eta errespetuaren inguruan ikastea eta hausnartzea. Gainera, sormena sustatuz, arrazakeriarekin lotutako egoerak ezagutzea eta hauen inguruan enpatizatzea, bide batez, beraiek alda edota gehitu ditzaketan egin ditzaketan jarrera edota ekintzak proposatuz.			


3. EBALUAZIOA

Irakasleek jarduera erraz ebaluatu ahal izateko, ondorengo galdetegi hau sortu da. Alde batetik, ikasleen asebetetze maila ebaluatzeko eta hausnarketa bidez barneratu beharreko kontzeptuak barneratu diren jakiteko galderak daude. Beste aldetik, jardueraren prozedura ebaluatzen duten galderak daude.

DATA:	IRAKASLEA:	MAILA eta GELA:
Ikasleen asebetetze maila honakoa izan da saioarekiko: 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10		
Hausnarketaren bat egin duzue gelan? Zein?		
Jarduerak dituen helburuak bete direla uste duzu? Azaldu zergatia.		
Arazorik izan duzue? (materiala, denbora...)		
Uste duzu ikasleen gaitasunetara eta adinera egokitutako jarduera bat dela?		
Iradokizunak / hobekuntzak:		


4. BALIABIDEAK

DIBI




Patricia Pérez Redondo
www.ongietorrieskolara.org

MALIK




PATRIK




Patricia Pérez Redondo
www.ongietorrieskolara.org


PRECIOUS




DIBI




MALIK



PATRIK



PRECIOUS



PRECIOUS




MALIK



Patricia Pérez Redondo
www.ongietorrieskolara.org

PATRIK



DIBI



5.- ERANSKINAK: IRAKASLEENTZAKO ERREKURTSOAK

5.1.- Ipuiak

- **"Hau ez da dinosauroa!" Aitor Saraiba:** Liburu hau, beste gai batzuei buruzkoa bada ere, aukera bikaina da aniztasunari buruzko elkarrizketak hasteko. Hizkuntza erraz baten eta irudi dibertigarrien bidez, estereotipoak zalantzan jartzera eta desberdintasunak onartzera gonbidatzen ditu haurrak.
- **"Maitasuna eta familia" Sophie Beer:** Ezin hobea da haurrei erakusteko familiak askotarikoak direla eta guztiek errespetua merezi dutela.
- **Munduko haurrak:** Liburu honek munduko hainbat lekutako haurrak aurkezten ditu, euren ohiturak eta tradizioak erakutsiz. Haurrak kultur aniztasunera sartzeko modu dibertigarria da.
- **Txiki eta handi:** Liburu honek pertsonen arteko desberdintasun fisikoak eta pertsonalak jorratzen ditu, aniztasunaren onarpena sustatuz.
- **Nire familia:** Familia mota desberdinak erakusten dituen liburua, familia ugarietatik hasi eta guraso bakarreko familietaraino, familia guztiak baliozkoak direlako ideia sustatuz.
- **Hasiberriak**

Parean Elkartearen web orrian ere ipui zerrenda interesgarria topa dezakezue:

<https://parean.eus/portfolio/ipuin-inklusiboen-gida-kolektiboa/>

5.2.- Gaian sakontzeko

- **"Hezkuntza Interkulturala"** (Educación Intercultural) Xabier Etxague: Kultura arteko hezkuntzaren arloko klasiko batek ikuspegi teoriko eta praktikoa oso bat eskaintzen du.
- **Hezkuntza Inklusiboa:** Inklusioan zentratuta egon arren, mota horretako liburuek kultura-aniztasunarekin lotutako alderdiak ere jorratzen dituzte.
- **Publicaciones de Elkar Hezkuntza:** Euskal argitaletxe honek hezkuntza baliabide sorta zabala eskaintzen du, ikasgelan aniztasuna eta kulturartekotasuna lantzeko liburu eta gidak barne.
- **Haurrak.eus:** Haurrentzako hezkuntza baliabideak euskaraz dituen webgunea, ipuinak, abestiak eta jarduerak barne.
- **Educatolerancia:** Webgune honek kulturartekotasunari buruzko haur eta gazteentzako bibliografia zabala eskaintzen du:
<https://www.educatolerancia.com/interculturalidad-bibliografia-infantil-juvenil/>
- **"Transgresioa irakasgai - hezkuntza askatasunaren praktika". Bell Hooks.**
- **"Educando a una ciudadanía multicultural".** Banks, J. A. (2004). Paidós.
- **"Las escuelas y la sociedad multicultural"** Sleeter, C. E. (2001). Paidós.
- **"Pedagogía del oprimido".** Paulo Freire.
- **"Diversidad cultural en el aula".** James Banks
- **"Escuelas que funcionan".** Linda Darling-Hammond
- **Diversidad en el aula: Retos y oportunidades de diversos autores**

5.3 .- Pelikulak:

Euskaraz:

- **Kiriku eta basapiztiak:** Animaziozko film honek Afrikako herri batean bizi den eta sorgin gaizto bati aurre egin behar dion haur baten istorioa kontatzen du. Bere abenturen bidez, Kirikouk elkartasuna, adiskidetasuna eta besteekiko errespetua bezalako balioak irakasten dizkie haurrei.
- **Urrezko arraina:** urre-koloreko arrain magiko bat aurkitzen duen neskato baten istorioa kontatzen du. Bere abenturen bidez, neskak adiskidetasunari, elkartasunari eta besteei laguntzearen garrantziari buruz ikasten du.

5.4.- Gaiarekin loturiko hiztegia

Kulturartekotasuna: Kulturartekotasuna kulturen arteko elkarrekintza da, eta elkarriketa, elkarrekiko errespetua eta kultura guztiak aberastea du helburu. Prozesu dinamikoa da, eta hainbat kultura-jatorritako pertsonen arteko bizikidetzak, ikaskuntza eta trukea eskatzen ditu.

Aniztasuna: Pertsona bakoitzak dituen ezaugarri bereizgarriak dira; besteen aurrean bereizten gaituena. Ezaugarri horiek agerikoak izan daitezke, hala nola azalaren kolorea, generoa edo itxura fisikoa, edo ikusezinak, hala nola orientazio sexuala, erlijioa, sinesmenak, jatorri etnikoa, desgaitasuna, adina, hizkuntza, klase soziala, bizi esperientziak, eta beste asko.

Inklusioa: Barneratzearen ekintza eta ondorioa da. Testuinguru sozial batean, pertsona guztiak ongi etorriak, baloratuak eta errespetatuak sentituko diren inguruneak sortzea esan nahi du, desberdintasunak alde batera utzita. Aniztasuna aitortzea baino gehiago da; pertsona guztiek gizartean erabat parte hartzeko aukera berdina izatea bermatzea da.

Ekitatea: Pertsona guztiak modu justuan tratatzea eskatzen du, bakoitzaren premia indibidualak eta zirkunstantzia partikularrak kontuan hartuta. Hau da, kontua ez da denak berdin tratatzea, baizik eta bakoitzari bere potentzial handiena lortzeko behar duena ematea.

Arrazakeria: Arrazakeria arraza-talde bat beste batzuen gainetik dagoela defendatzen duen ideologia da, eta horrek diskriminazioa eta jazarpena eragiten ditu. Uste oker eta kaltegarri horrek izugarritzko sufrimendua eragin du historian zehar, eta arazo larria izaten jarraitzen du munduko leku askotan.

Estereotipoa: Estereotipo bat pertsona talde bati buruz dugun irudi sinplifikatu eta orokortu bat da, hainbat ezaugarritan oinarrituta dagoena: arraza, generoa, adina, nazionalitatea, okupazioa, etab. Estereotipo horiek kulturalki transmititu ohi dira, eta positiboak zein negatiboak izan daitezke.

Aurreiritzia: Aurreiritzia pertsona edo pertsona-talde bati buruz aurrez pentsatutako iritzia da, oro har negatiboa. Errealitatea zuzenean esperimentatzeko aukera izan aurretik osatutako judizioa da. Aurreiritziak arraza, generoa, erlijioa, orientazio sexuala, nazionalitatea, klase soziala, itxura fisikoa edo pertsonak kategorizatzeak erabiltzen den beste edozein ezaugarritan oinarritzen dira.

Diskriminazioa: Diskriminazioa pertsona edo pertsona-talde bat modu desberdin eta kaltegarrian tratatzean datzan ekintza bat da, besteei ematen zaizkien eskubide eta aukera berberak ukatuz. Tratu-desberdintasun hori hainbat ezaugarritan oinarritzen da, hala nola arraza, generoa, erlijioa, sexu-orientazioa, desgaitasuna, adina eta jatorri nazionala, besteak beste.

Sentsibilizazioa: Sentsibilizazioaren bidez, gai jakin bati buruzko kontzientzia eta ulermena areagotu nahi dira. Testuinguru sozialean, sentsibilizazioaren helburua da desberdintasun indibidual eta kolektiboekiko enpatia, errespetua eta tolerantzia sustatzea.

Enpatia: Enpatia beste pertsona baten sentimenduak ulertzeko eta partekatze gaitasuna da. Beste norbaiten oinetakoetan jarri eta haiek sentitzen dutena sentitzea bezala da. Funtsezko trebetasun soziala da, besteekin konektatzeko, harreman sendoagoak eraikitze eta gizarte bidezkoagoak eta errukitsuagoak sortzeko aukera ematen diguna.

5.5.- Ikasgelan lantzeko funtsezko kontzeptuak:

- **Identitate kulturala:** Identitate kulturala gizarte-talde bat definitzen eta besteengandik bereizten duten balio, sinesmen, ohitura, tradizio eta sinboloen multzoa da. Pieza txiki askok osatutako mosaiko bat bezalakoa da, eta pieza bakoitzak gure historiaren, jatorriaren eta mundua ikusteko moduaren alderdi desberdin bat irudikatzen du.
- **Ezberdintasunen balorazioa:** Desberdintasunak baloratzea: inguratzen gaituen aniztasuna ezagutzea, errespetatzea, estimatzea eta ikastea eskatzen du. Hori funtsezkoa da bizikidetzak baketsurako, berrikuntzarako, garapen pertsonalerako eta garapen globalerako. Nola baloratu desberdintasunak? Kulturarteko hezkuntza sustatuz, kulturen arteko elkarriketa sustatuz, enpatia garatuz eta aniztasuna ospatuz. Hala ere, erronkak daude. Aurreiritziek desberdintasunen balorazioa zailtzen dute, desberdintasunek gatazkak sor ditzakete behar bezala kudeatzen ez badira, eta globalizazioak eta homogeneousazioak kultura-aniztasuna galtzea ekar dezakete. Zer arlotan aplika dezakegu hori? Hezkuntzan, hezkuntza-ingurune inklusiboak eta multikulturalak sortuz; enpresetan, askotariko lantaldeak eta aukera-berdintasuna sustatuz; politikan, aniztasuna eta inklusioa sustatuko dituzten politika publikoak landuz; eta gure eguneroko bizitzan, kultura desberdinetako pertsonekin errespetuz elkarrekin. Desberdintasunen balorazioa etengabeko prozesua da, eta etengabeko ahalegina eskatzen du.
- **Elkarren arteko errespetua:** Pertsona bakoitzaren desberdintasun indibidualak eta kulturalak ezagutzea eta baloratzea da, jatorria, sinesmenak, iritzia edo bizimodua kontuan hartu gabe. Besteak tratatu nahiko genituzkeen bezala tratatzea eskatzen du, duintasunez eta begirunez.
- **Kooperazioa:** Lankidetzak helburu komun bat lortzeko elkarrekin lan egiteko ekintza da. Baliabideak partekatzea, ahaleginak koordinatzea, modu eraginkorrean komunikatzea eta gatazkak modu eraikitzailean konpontzea eskatzen du. Prozesu horretan, bi pertsonak edo taldek edo gehiagok indarrak batzen dituzte, banaka lortzea zailagoa edo ezinezkoa litzatekeen zerbaitek lortzeko. Lankidetzak funtsezkoa da gure gizartean, eraginkortasuna handitzen duelako, berrikuntza sustatzen duelako, harremanak indartzen dituelako eta ongizate kolektiboari laguntzen dielako. Ahaleginak konbinatzean, emaitza azkarragoak eta hobeak lor ditzakegu, ideia sortzaileak sor ditzakegu eta komunitate bidezkoagoak eta bidezkoagoak eraiki. Lankidetzak gure bizitzako hainbat esparrutan dago, talde lanetik hasi eta gizarte harremanetaraino, boluntariora eta politika barne. ...
- **Justizia soziala:** Justizia soziala kontzeptu konplexua da, aukera berdintasunari eta gizarte bateko ekitateari buruzkoa. Pertsona guztiek ahalik eta potentzial handiena garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta aukerak izango dituztela bermatu nahi du, jatorria, arraza, generoa, sexu orientazioa, erlijioa edo beste edozein ezaugarri pertsonal kontuan hartu gabe.